

2010eko Aste Nagusia

Hizkuntza erabileraren neurketa



Donostiako Euskaltzaleen Elkartea

Katalina Eleizegi kalea, 36-behea. 20009 Donostia
Tel: 943467181- Fax: 943446532- e-mail: bagera@bagera.net

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. METODOLOGIA
3. BEHAKETAREN EMAITZA
 - 3.1. KTEtik ANTOLATUTAKOAK
 - 3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 3.1.1.1. Egitarauak
 - 3.1.1.1.1. Dosierra
 - 3.1.1.1.2. Programazio liburuxka
 - 3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra
 - 3.1.1.1.4. Bozka txartela
 - 3.1.1.1.5. Esku egitarauak
 - 3.1.1.1.5.1 Aste Nagusiko egitaraua
 - 3.1.1.1.5.2 Su Artifizialen egitaraua
 - 3.1.1.1.5.3 Aste Erraldoiaren egitaraua
 - 3.1.1.2. Kartelak
 - 3.1.1.2.1. Orokorra
 - 3.1.1.2.2. Su artifizialak
 - 3.1.1.2.3. Zezenketak
 - 3.1.1.2.4. Faroletakoak
 - 3.1.1.2.5. Bestelakoak
 - 3.1.1.3. Ekintzetan banatutako esku orriak
 - 3.1.1.4. Oharrak
 - 3.1.1.5. Web gunea
 - 3.1.1.6. Prentsa oharrak, publizitatea,...
 - 3.1.1.7. CDak
 - 3.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 3.1.2.1. Prentsaurrekoak
 - 3.1.2.2. Bulegoko harrera
 - 3.1.2.3. Ekitaldien aurkezpen eta ekintzak
 - 3.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 3.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA
 - 4.1. HAURRAK
 - 4.2. MUSIKA
 - 4.3. SU ARTIFIZIALAK
 - 4.4. KIROLAK
 - 4.5. FOLKLOREA
 - 4.6. BESTEAK
5. ONDORIOAK ETA BALORAZIOA
 - 5.1. KTEtik ANTOLATUTAKOAK
 - 5.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 5.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 5.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.3. ORO HAR

1. SARRERA

Azken hamazazpi urteetan, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusiko hizkuntza tratamendua aztertu du, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, uneoro euskararen erabilera eta egoera ezagutu nahian, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidezkoa iruditzen baitzaigu.

Behaketaren zergatia

Euskararen hizkuntza normalkuntza prozesuan, ezinbestekoa da ekintza instituzionala eta Donostiako gizarte osoaren parte hartzea bultzatzea; abiapuntu honetatik, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusian euskararen erabilera zein egoeratan aurkitzen den jakin nahi du, bai instituzioen aldetik, Donostia Kulturaren aldetik, alegia, eta bai gizartearen aldetik.

Garrantzitsua iruditzen zaigu egunerokotasunean euskararen presentzia bermatzea. Aldi berean, jai giroan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskararen erabilera suspertzea, euskal kulturarekin batera.

Euskararen erabileraren neurketa egiteko orduan, kontuan hartu behar dugu Donostiaren egoera turistikoa udan zehar. Abuztuan zehazki, Donostiatik kanpoko jende ugari etortzen da: kanadarrak, italiarrak,... eta Estatuko hainbat herritatik etorritako jendea. Hau dela eta, egitarauaren aniztasuna beharrezkoa ikusten dugun bezala, argi ikusten dugu euskarari merezi duen tokia eman behar zaiola, hots, gutxienez gazteleraren pareko presentzia izan behar duela.

Euskara, gaztelerarekin batera, hizkuntza ofiziala da Donostian eta Aste Nagusia antolatzekeo garaian, donostiarren hizkuntza eskubideak kontuan hartu behar dira. Donostia Kulturaren eta erakunde pribatuen euskararen erabilerarik handiena lortzea donostiarren onurarako da.

Donostiako Aste Nagusian, euskara mugarik gabe erabilia izatea errealitate bihur daitekeen ametsa da eta, horretarako, ezinbestekoa da gizarte sektore guztien partaidetza eta inplikazioa lortzea .

Azken finean, hizkuntza funtzionamenduaren aldaketak mailakatua eta naturala izan behar du, eta sektore guztietan gauzatu behar da, baita aisialdian ere.

2. METODOLOGIA

Donostiako Aste Nagusiko euskararen erabileraren neurketa aurrera eraman ahal izateko, honako pausoak eman ditugu:

Urtero egiten dugun bezala, Donostia Kulturako Jaietako arduradunekin harremanetan jarri aurtengo egitarauaren nondik norakoen berri jasotzeko eta hobetu beharreko arloetan gure laguntza eskaintzeko.

Ondoren, behatzaile taldea osatu eta beraiekin harremanetan jarri. Aurten 25 behatzaile inguru izan ditugu eta beraiekin egindako bileran, behaketa nola garatu behar zuten azaldu zaie.

Behatzaile taldeak jasotako zehaztasunak honakoak izan dira:

Jarduera: Su artifizialak/ kontzertuak/ Hip Hop tailerra./...

Eguna: Jarduera egin den egunaren data

Ordua: Jarduera egin den ordua

Lekua: Jarduera garatu den tokia

Ahozkoak: (Ahal dela portzentajeak erabili)

Aurkezpenak: aurkezpenik izan bada, hizkuntza bakoitzean erabili den portzentajea aipatu (adibidez: %75 euskaraz, %25 gazteleraz).

Jarduera: ekintzaren garapenean hizkuntzarik erabili bada, erabili den hizkuntza adierazi behar da.

Bozgorailua: Bozgorailuz zerbait esan bada, zein hizkuntzan izan den adierazi.

Idatzizkoak: (Ahal dela portzentajeak erabili)

Kartela: Kartelik badago, adierazi zein hizkuntzatan dagoen idatzita .

Bi orrikoak/ esku egitarauak: mota horretako euskarririk balego, adierazi zein hizkuntzatan dauden idatzita .

Publizitatea: publizitate euskarririk balego, adierazi iragarleak zein hizkuntza erabili duen.

Bestelakoak: beste euskarri motarik balego, adierazi zein motatakoa den eta zein hizkuntza erabili den.

Ikusle/ entzule kopurua/ adina: adierazi zein ikusle mota den eta ahal dela kopurua gutxi gorabehera.

Oharrak: aurrekoek gain, beste ezer izanez gero, azalpenak adierazteko tartea.

Behaketa egiteko, ahal izan diren ekitaldi gehienak neurtu dira, baita idatzizko materiala ere.

3. BEHAKETAREN EMAITZA

3.1. DONOSTIA KULTURAtik ANTOLATUTAKOAK

3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa

3.1.1.1. Egitarauak

3.1.1.1.1. Dosierra

142 orrialdeko dosierra da aurtengoa, oro har esan daiteke ele bitan idatzita dagoela, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Dosierra atalka

Azalean, Aste Nagusiko kartela ele bitan ageri den arren (data, lekua...), lelo nagusia gazteleraz da, “**vale x 8 días**”. Lelo nagusiaren azpian hizki txikiagoz “tradizioa, musika, ikuskizunak, festak...” jartzen du euskaraz.

Prentsa dosierraren hasieran aurkibidea ageri da, lehenengo hizkuntza euskara eta ondoren gaztelera da. Baina badira akats batzuk euskarazko bertsioan (Sagües, feriala).

Jarraian **kartel lehiaketaren** irabazlearen azalpena dago, lehenengo hizkuntza euskara eta ondoren gaztelera da.

Festa hasierako kanoikada atalean “erritmoarekin kanoikadara!!!”, “festa hasierako kanoikada” eta “Gertrudisen kontzertua” gehiena ele bitan badago ere, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz, zenbait hutsune topatu ditugu.

- The Joselontxo's Txarangaren azalpenean euskarazko bertsioan ulertzen ez den esaldi bat dago eta horrez gain ergatiboa falta zaio: “*Txarangaren sorreran garrantzia handia izan dute Joxean Malvido, Musika Eskolako tuba Pedro Migueliz, kilikariak fanfarre ospetsuko kidea*”.

- Erritmoarekin kanoikadara atalean, euskarazko paragrafoan kale izenak gaizki idatzita azaltzen dira: *31 de agosto* (Abuztuaren 31 kalea), *Boulevardra* (Boulevard), *Alderdi Ederra* (Alderdi Ederrera) eta azalpena oso gaizki idatzita dago: “*Gastronomiako Euskal Kofradiako Konpainia bere elkartetik aterako da eta Trinitate plaza, 31 de agosto kalea, Sn Jeronimo kalea, eta Boulevardra pasa ondoren, Alderdi Ederra iritsiko dira, bere ibilbidean Los Pasai txarangarekin joango dira*”.

Musikari dagokionez, kontzertuak lekuaren arabera sailkatuak agertzen dira (Sagues, Trinitate plaza, Konstituzio plaza, Kursaal Terrazak, Easo plaza, Boulevardeko musika bandak eta Boulevardeko gauak), gune bakoitzaren egitaraua eta talde bakoitzari buruzko ezaugarriak azalduz. Guztia ele bitan izanda ere, euskarazko atalean maila eskasean idatzitako testuak topatu ditugu. Testu batzuetan euskararen maila ez da behar bezalakoa, nabaria da gaztelaniatik hitzez hitzeko itzulpena egiten dela. Horrez gain, taldeei egiten zaizkien iruzkin eta kritikak gaztelera hutsez daude.

- Soinu bandei dagokienez, izen guztiak gazteleraz soilik azaltzen dira (*Banda de musica ciudad de Irun, Banda de Magallón, Orquesta de acordeones Illunbe...*).

- Orkestren kasuan berdina gertatzen da (*Orquesta Azababache, Orquesta milenium...*).

- Kursaal Gune Zabala atalean, gau bakoitzari izenburu ezberdin bat jarri zaio, eta horietatik, bakarra da euskaraz (*Kursaalando el body, ¡¡remonta la Semana Grande con los Dj's de Bengoa Entertainment!!*, *¡¡Que no pare la fiesta!!*, *Noche tridimensional*, *Noche Ibicenca con...*, *La noche Bataplan*).

Zurriola Kultur Irekiari buruzko emanaldien zerrenda gehiena gazteleraz dago (*animación de calle, música mexicana, pop electrónico, percusión Cubana...*), bi kasutan besterik ez dago bi hizkuntzatan (euskaraz eta ondoren gazteleraz).

Antzerkiari buruzko informazioa ele bitan ageri da.

Kaleetan zehar dauden **fanfare eta txarangei** buruzko saila ere ele bitan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz, lekuen izenak euskaraz bakarrik daude.

Easo plazako ikastaroei dagokionez 5 ikastaroetatik 4 daude bi elebitan eta 2 gaztelera hutsean (Boda Hindú: Carmen Garmendia y María Govillard).

Kirolen atalean elebitasuna mantentzen da azaltzen den informazioan.

Aurtengo Aste Nagusiaren **haur jaialdien** atalean, haurrentzako egitaraua lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz dago.

Erraldoi eta buruhandien egitaraua ele bitan dago. Irteerak eta partehartzaileen zerrendak ele bitan ageri dira lehentasuna euskarari emanez.

Zezensuzkoaren entzierroaren datuak eta historia ele bitan idatzita daude, lehenengo hizkuntza euskara izanik, hala ere akats bat topatu ditugu (*entzerrua*).

Gastronomia atalean, marmitako eta hegaluzearen lehiaketari dagokionez, ele bitan idatzita dago informazio guztia.

Eskulangintza azokaren programazioa ele bitan dago.

II. Itsaspeko Zinemaren erakustaldiaren atalean informazio guztia gaztelera hutsean dago.

Azkenik, Paseo Berrian eta Portuan jartzen diren ferien inguruko informazioa ele bitan irakurri dezakegu, baina atalaren izenburua “**feriala**” gaztelerazko hitza da, euskaraz ez da existitzen.

Oro har elebitasuna mantentzen da Aste Nagusiko dossierrean, eta normalean euskara da lehen hizkuntza. Iazko dosierrarekin alderatuta, iazko hainbat akats zuzendu badira ere (leku batzuen izenak adibidez), badira oraindik zuzendu beharrekoak: guneen izenak, iruzkinak, akats gramatikalak... Bestalde, gramatikalki egoki egon daitezkeen arren, ondo ulertzen ez diren hainbat testu eta erdarakada topatu ditugu gaztelerazko bertsiotik hitzez hitzezko itzulpena egiten delako. Urtero aipatzen dugun kontua da eta onartezina iruditzen zaigu udaletik ateratako testuetan horrelakoak ikustea eta behin eta berriz errepikatzea.

3.1.1.1.2. Programazio liburuxka

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da, dossierrean aipatu bezala lelo nagusia gaztelera hutsez azaltzen da “*Vale x 8 días*”. Kontrazalean berriz, Amstelen iragarkia ageri da; iragarki honen goialdean “*Cada año votamos si debemos cambiar nuestra fórmula. Las últimas 138 veces salió no.*” dio. Azpian hizki txikiz, gaztelera hutsezko beste esaldi bat ageri da “*Amstel recomienda el consumo responsable.*”.

Bigarren orrialdean babesleen eta laguntzaileen logoak azaltzen dira, ele bitan aurkeztuta daude eta iragarki etxeek ez dute lelorik erabili. Hirugarren orrialdean, Odon Elorza alkateak sinatutako agurra ageri da ele bitan.

Jarraian egitaraua egunez egun azaltzen da, ezkerraldean gazteleraz eta eskuinaldean euskaraz. Euskarazko bertsioan akatsak topatu ditugu: Sagües, larruzko abarkak egiteko **erakusgarri** tailerra, kañoi, ... Bestetik aipatu, Boulevard Zumardia erabiltzeko orduan hiru era ezberdinetan irakurri dugula (Boulevardrean, Bulebarra eta Boulevardeko). Horretaz gain, abuztuaren 16an, 23:30etik 23:45erako programazioa gazteleraz idatzita dago euskarazko bertsioan.

Aste Nagusiko jarduera guztiak liburuxkaren erdian dagoen taula batean laburbiltzen dira. Jarduera batzuk euskaraz (59), gehiengoak gazteleraz (96), taldearen izena jatorrizko hizkuntzan (46) eta gainerakoak ele bitan (20) azaltzen dira. Taularen atzean, astean zehar izango diren beste ekintzen azalpenak azaltzen dira; antzerkiei buruzkoak euskaraz, erakusketenak gazteleraz, Zurriola Kultur Irekiarenak ele bitan, Kursaal Casinoarena gazteleraz eta Tennis txapelketarena ere gazteleraz. “Egunean zehar” izango diren beste ekintzen azalpenetan aldiz euskara nagusitzen da.

3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra

Azalean eta kontrazalean, kartel ofiziala ageri da ele bitan; “47 Concurso Internacional de Fuegos Artificiales” jartzen du lehenengo, eta azpian “Su Artifizialen 47. Nazioarteko Lehiaketa” (gasteleraz baino hizki handiagoz). Ondoren data ele bitan irakur daiteke.

Hurrengo orrian aurkibidea eta jarraian kartel lehiaketaren azalpena agertzen da bi elebitan. Euskarazko azalpenean akatsak aurkitu ditugu: “*adina guztietako jendeari zuzendua*”, “*didertsioa*”, “*ikuzkizuna*”.

Egitarauaren atalean, piroteknia etxeen eta herrien izenak gazteleraz soilik irakur daitezke: “*Pirotecnia Turis (Valencia)*, *Pirotecnia Valecea (Alava)*, *Pirotecnia Peñarroja (Castellon)*...”

Beste atalei dagokienez, nahiz eta ele bitan idatziak egon, gaztelerazko testuen hitzez hitzeko itzulpenak dira eta zenbait esaldi ez dira ulertzen, adib: “*Bete kupoi bat, egunero, eta sartu autobusean, Alderdi Ederreko Euskaltelen karpan*” eta epaimahai gaztea atalean, “*ondorengo denak elkartzen dira beraien iritziak aldatzeko*” (*elkartrukatzeko* edo antzeko zerbaite izan beharko luke).

3.1.1.1.4. Bozka txartela

Alde batetik azalpen guztia lehenengo euskaraz dago eta ondoren gazteleraz, eta beste aldetik, datu pertsonalak idatzeko, bi elebitan.

3.1.1.1.5. Esku egitarauak

3.1.1.1.5.1. Aste Nagusiko egitaraua

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da. Kontrazalean, “Casino Kurssal”-en iragarkia ageri da, euskaraz. Barruan Aste Nagusiko jarduera guztiak taula batean laburbiltzen dira, gehienak gazteleraz idatzita daude (96 gazteleraz, 59 euskaraz, 46 hizkuntza gabe (izen propioak dira) eta 20 bi hizkuntzatan (euskaraz eta gazteleraz)). Azkenik, Programazio liburuxkan aipatu bezala, astean zehar eta egunean zehar emango diren zenbait ekintza azaltzen dira: euskaraz (antzerkia), gazteleraz (*liga poker texas*, *concurso internacional tenis* eta erakusketak) eta ele bitan (Zurriola Kultur Irekia, nagusien barrakak, haurrentzako barrakak, padel txapelketa).

3.1.1.1.5.2. Su Artifizialen egitaraua

Alde batetik euskaraz eta bestetik gazteleraz dagoen esku orria argitaratu dute. Bi azaletan aurtengo su artifizialen lehiaketako kartela ageri da, eta ele bitan dago.

3.1.1.1.5.3. Aste Erraldoiaren esku orria

Azalean Aste Nagusiko kartela ageri da “Aste Erraldoia 2010 Semana Gigante” leloarekin. Kontrazalean erraldoi eta buruhandien informazioa dakar ele bitan (euskaraz lehenengo eta gazteleraz ondoren). Esku orriaren barruan ibilbideari buruzko zehaztapenak ele bitan daude.

Donostiako erraldoi eta buruhandien inguruko beste triptiko txiki bat eskuratu dugu. Ele bitan egon arren gaztelera nagusitzen da, eta erraldoi eta buruhandien elkarteari buruzko euskarazko testua oso traketsa da eta akatsez josita dago: *“Zortzi erraldoi eta hamahiru buruhaundi osaturiko konpartsa bat da”, “Erraldoiek lau bikotetan antolatutak daude”, “Arabarrak, Laguardiako “Chamorro”-a eta dantzaria irudikatzen dute”, “1982. urtetik, hau da sorreratik, Itzurun elkarteak bai erraldoi eta buruhaundiei bizia ematen du”*.

3.1.1.2 Kartelak

3.1.1.2.1. Orokorra

Aurtengo Aste Nagusiko kartelaren leloa, aipatu bezala, gazteleraz da *“Vale x 8 dias”*, leloaren azpian euskarazko hitzak (*tradizioa, musika, ikuskizunak, festa...*) hizki txikiagoz eta datak euskaraz eta gazteleraz ageri dira. Goian, Donostia Kulturaren logotipoa (donostiakultura.com, San Sebastian, ciudad de la cultura) eta azpian, Donostiako Udalaren eta Donostia 2016ren logotipoak daude.

3.1.1.2.2 Su artifizialak

Bertan ageri den informazioa ele bitan dago. Izenburua lehenengo gazteleraz eta ondoren euskaraz dago (hizki handiagoekin). Su artifizialen programaren kalean jarritako kartel handiak ere ele bitan zeuden baina herrialdeen izenak gazteleraz zeuden.

3.1.1.2.3 Zezenketak

Kartel nagusia gaztelera hutsez dago.

3.1.1.2.4. Faroletakoak

Orokorra: Aste Nagusiko kartel orokorra ele bitan badago ere, lelo nagusia gazteleraz.

Su artifizialekoak: Euskarazko eta gaztelerazko zintzilikarioak tartekatuta zeuden, iragarlearen leloekin eta bozkatzeko oharrekin.

Zezenketen faroletako kartelak ere euskaraz eta gazteleraz tartekatuak azaltzen ziren.

3.1.1.2.5. Bestelakoak

Boulevard erdian, Kursaal Kuboetan eta Easo plazan zeuden egitarau erraldoiak ele bitan idatzita bazeuden ere gaztelera gailentzen zen. Konstituzio plazan, aldiz, ele bitan egonda, euskara gailentzen zen.

3.1.1.3. Ekintzetan banatutako esku orriak

Boulevardeko kioskoan izan den musika banda bakoitzeko esku orri bat banatu da, alde batetik aurtengo kartela eta bandaren izena ele bitan daude, eta bestetik, ekitaldiari buruzko informazioa ele bitan.

Konstituzio plazan izan zen folklore emanaldi bakoitzeko bi orriko bat atera da. Azalean Aste Nagusiko kartela ikusten da, dantza talde bakoitzaren izena euskaraz ageri da, eta azkenik, lekua, eguna eta ordua ele bitan daude. Barruan, ele bitan talde bakoitzari buruzko testua ageri da. Bi orrikoaren kontrazalean “Dantza Konstituzio enparantza, Danza plaza de la Constitución” leloa ageri da.

Erraldoi eta buruhandien konpartsen informazioarekin ere bi orrikoa atera da. Egitaraua, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita dago.

Arrantza txapelketaren oinarriekin esku orria atera da; Orriaren alde batean euskaraz eta bestean gaztelera azaltzen da informazio guztia.

Amstelek ateratako bi esku egitarauen (antzerkia eta dantza Gipuzkoa plazan) informazioa ele bitan idatzirik dago, alde batean euskaraz eta bestean gaztelera. Kontrazalean Amsteleko logotipoa dago eta azpian “Antzerkia eta dantza Gipuzkoa plazan, Teatro y danza en la plaza Gipuzkoa” leloa.

Azkenik, XXXIII. Txistularien Kontzertu Nagusirako atera den esku orrian informazio guztia euskara hutsez dago.

3.1.1.5. Web gunea (www.donostia.org)

Donostiako Udalaren ataria da. Behin gune honetan sartuta, lehen orria gaztelera hutsean dago, ondoren hizkuntza hautaketa egiteko aukera ematen du, gaztelera, euskara, ingelesa eta frantsesaren artean. Euskara hautatuz gero eta Aste Nagusia klikatuz gero, hamar azpialal ditu guneak:

- **Sarrera.** Testua akats ortografikoz josita dago (*koreteari, aristrokazia, haundi, hacia, ata, Chofre, propagandarko, jendetzua, agonaldi, haundikoenak, haundirik, errelitate, bast, baat, antzeerki, kanpotaar, baarruko, ezeer, zaaratatsu, eeta*).
- **Kontzertuak Sagüesen 2010.** Auzoaren izena gaztelera azaltzen da, bai izenburuan baita testuan ere (Sagües) eta horrez gain, “*dohaneakoak*” hitza gaizki idatzita dago (doanekoak edo dohaineakoak izan beharko luke).
- **2010 urteko Aste Nagusia.** Sarrera ele bitan.
- **Artillero.** Honako esaldia topatu dugu: “*Hitzak eta músika etxetik abesteko nahi ba duzu*”.
- **Aste Nagusia iragartzen duen kartela 2010.** Egilea jarri beharrean erdarazko “autor” ageri da.
- **Urrezko kopa-aizkolariak 2010.** Orain arteko denbora onena zein den aipatzerakoan esaldia gaztelera hutsez agertzen da euskarazko bertsioan “*No se pudo batir el record establecido por Donato Larretxea en el año 1995, 27'17" ”*”
- **Igeldoko harria – harri-jasotzaileak 2010.** 2009ko Igeldoko emaitzak ageri dira, izenburua zein taula gaztelera hutsez dago (*Clasificación de la Igeldoko Harria 2009*) eta bukaeran beste lotura bat azaltzen da gaztelera izenburuarekin (*resultados de los últimos años*).

- **Su Artifizialen 47. Nazioarteko lehiaketa.** Akatsak ere topatu ditugu atal honetan: *Urretxutarrena, Valentziatarrak, ikuzkizuna, botua, untzi, elatu-denda, didertsiora, zuzenduduta*. Honetaz gain hirietako izen asko gaztelera hutsean topatu ditzakegu: *Bélgica, Canadá, Costa Rica...*
- **XVIII Donostia Hiria Pop-Rock lehiaketa 2009.** Ele bitan.
- **Txosnen instalazioa Sagüesen 2010.** Informazio guztia ele bitan dago.

3.1.1.6. Prentsa oharrak, publizitatea, ...

Aste Nagusiko prentsaurrekoetarako gonbiteak euskaraz edo ele bitan jaso ditugu.

3.1.1.7. CDak

Prentsari banatu zitzaizkion CDetan, Aste Nagusiko egitaraua eta su artifizialen inguruko informazioa duten dokumentuak ele bitan daude, hala ere, artxiboen izenburuak gaztelera bakarrik irakur daitezke (*Dossier para prensa, Cartel Fuegos RGB*”, *Cartel fuegos Txiki, Dossier Medios*)

3.1.2 Ahozko erabileraren neurketa

3.1.2.1 Prentsaurrekoak

Ekainaren 1ean, Aste Nagusiko kartelaren eta musika egitarauaren aurkezpena egin zen, Victoria Eugenia Antzokiko Foyer-ean. Prentsaurrekoa goizeko 11:00etan hasi zen eta bertan izan ziren Denis Itxaso (Gazteria eta Kultura zinegotzia), María Jesús Torres (Donostia Kulturako Festak ataleko arduraduna) eta Ramón Neria (Amstel-en ordezkaria). Denis Itxasok sarrera ele bitan egin bazuen ere, prentsaurreko osoa gaztelera egin zuten.

Abuztaren 5ean, 2010eko Aste Nagusiaren aurkezpena egin zen. Kaiko Hego Moilan, Santa Klara Irlara doazen ontziak ateratzen diren tokiaren ondoan. Prentsaurrekoa eguerdiko 12:00etan hasi zen eta bertan Odon Elorza (alkatea) eta Denis Itxaso (Kultura eta Gazteria zinegotzia) izan ziren. Denis Itxasok sarrera hasieran euskaraz eta ondoren gaztelera egin bazuen ere gaztelera denbora gehiagoz aritu zen (17 minututik 3-4minutu euskaraz). Ondoren, Odon Elorzak hartu zuen hitza eta kasu honetan ere, euskaraz hasi bazen ere interbentzio gehiena gaztelera izan zen. Jarraian galdera tartea zabaltu zuten euskaraz, 3 galdera gaztelera eta bi euskaraz egin ziren, erantzunak, galdera egin zen hizkuntza berean erantzun zuten. Bukatzeko agurra euskaraz egin zuten bi hitzetan.

Uztailaren 27an, goizean aurkeztu zen **Su Artifizialen Nazioarteko 47. Lehiaketa**, baita abuztuaren 21ean eskainitako ikuskizun piromusikala ere. Bertan Odon Elorza (alkatea) eta Denis Itsaxo (Donostiako Udaleko Kultura eta Gazteria zinegotzia) egon ziren. Hasieran izozkiak banatu zituzten bertan zegoen jendeari eta komentario guztiak gaztelera izan ziren. Ondoren prentsaurrekoari hasiera eman zioten eta Denis Itsaxok hitza hartu zuen. Azalpen osoa euskaraz eta ondoren gaztelera egin ondoren Odon Elorzak hartu zuen hitza gaztelera. Azkenik galdera tartea zabaltu zen eta galdera eta erantzun guztiak gaztelera izan ziren.

Su Artifizialen sarien inguruko prentsaurrekoa. Denis Itsaxo eta epaimahai gazteko partaide bat izan ziren bertan eta prentsaurreko osoa gaztelera hutsez izan zen.

Aste Nagusiari buruz behatu diren prentsaurrekoak kontuan izanda, euskararen presentzia nahiko urria izan da, agurretan, erabilera nahiko orekatua izan arren (kasu batzuetan), ondoren ia azalpen guztiak gaztelera izan dira. Oraindik ere, oro har prentsaurrekoetan euskararen erabilera oso txikia izaten jarraitzen du.

3.1.2.2 Bulegoko harrera

Donostiako Kulturako bulegora telefonoz deitu edo bulegora gerturatuz gero, harrera hainbat hizkuntzetan egiten dute, euskarari behar den lekua eskainiz.

3.1.2.3 Ekitaldien aurkezpenak eta ekintzak

BALORAZIOA ORO HAR		
DKk antolatua	Orotara	%
HG	72	42,60
Euskaraz	25	14,79
Gazteleraz	53	31,36
Ele bitan	9	5,33
Beste H/ H anitzak	10	5,92
Guztira	169	100,00

3.2 BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK

3.2.1 Ahozko erabileraren neurketa (aurkezpen eta ekintzak)

BALORAZIOA ORO HAR		
DKtik at	Orotara	%
HG	6	10,71
Euskaraz	1	1,79
Gazteleraz	39	69,64
Ele bitan	7	12,50
Beste H/ H anitzak	3	5,36
Guztira	56	100,00

4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA

4.1. HAURRAK

Nork	Eguna	Ordua	Leku	Jarduera	Aurkezpena	Megafonia/Esataria	EKINTZA	Monitoreak	Sari banaketa	Oro har
DK	Abuztuak 16	11:00	Boulevard	Puzgarriak	EZ		HG			HG
Kutxa DK	Abuztuak 16	17:30	Boulevard	Bizikleta festa	Ele bitan		HG		Euskaraz	Ele bitan*
	Abuztuak 16	18:30	Gros	Erraldoi eta buruhandiak	EZ		HG			HG
KUP	Abuztuak 17	11:00	Boulevard	Puzgarriak	EZ		HG			HG
Fortuna	Abuztuak 17	17:30	Easo plaza	Aerobic			Gaztelera			Gaztelera
DK	Abuztuak 17	17:30	Kursaaleko kubo txikiaren atzea	Esgrima	ez	Gaztelera	HG	Euskaraz		Gaztelera
Tenis Elkartea DK	Abuztuak 17	17:30	Koldo Mitxelena	Tenis challengerra kalean	Gaztelera>	Gaztelera, euskaraz esaldi batzuk	Gaztelera	Gaztelera		Gaztelera
	Abuztuak 17	17:30	Bretxa	Artzainen jolasak		Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz*		Euskaraz
DK	Abuztuak 17	18:00	Urgull	Buztinezko natura			Euskaraz			Euskaraz
DK	Abuztuak 17	18:30	Kontxa	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 14	18:30	Erdialde eta Alde Zaharra	Erraldoi eta buruhandiak	EZ		HG			HG
DK	Abuztuak 15	11:00	Boulevarda	Puzgarriak	EZ		HG			HG
DK	Abuztuak 15	17.30	Koldo Mitxelena	Jokulandia			HG			HG
DK	Abuztuak 15	18:30	Portuan	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 18	11:00	Boulevarda	Puzgarriak	EZ		HG			HG
DK	Abuztuak 18	17:30	Easo plaza	Zirkuitu zientifikoa	Euskaraz	Euskaraz>gaztelera baino	Euskaraz batez ere	Euskaraz batez ere		Euskaraz
DK	Abuztuak 18	18:00	Urgull Natur txokoa	Paperaren birziklatua			Euskaraz			Euskaraz

DK	Abuztuak 18	18:30	Bretxa	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 19	11:00	Boulevarda	Puzgarriak			HG			HG
DK	Abuztuak 19	17:30	Boulevarda-Bretxa	Goloka park	Euskaraz		Euskaraz			Euskaraz
Fortuna	Abuztuak 19	17:30	Easo plaza	Airobic			Gaztelera			Gaztelera
DK	Abuztuak 19	18:30	Erdialdea	Erraldoiak eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 20	11:00	Boulevarda	Puzgarriak	EZ		HG			HG
DK	Abuztuak 20	17:30	Zurriola pasealekua	Esgrima	EZ	Gaztelera	HG	Euskaraz		Gaztelera
DK	Abuztuak 20	17:30	Araba parkea	Parke handia	EZ	Denetarik	HG	Gaztelera		HG
DK	Abuztuak 20	18:00	Urgull udako liburategia	Belle Epoque jokoak			Euskaraz			Euskaraz
DK	Abuztuak 20	18:30	Okendo plaza	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 21	11:00	Boulevarda	Puzgarriak	EZ		HG			HG
DK	Abuztuak 21	17:30	Konstituzio plaza	Kon Fetti	Euskaraz		Euskaraz			Euskaraz
DK	Abuztuak 21	18:30	Erdialdea	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG
DK	Abuztuak 21	21:00	S. Bizente	Erraldoi eta buruhandiak			HG			HG

4.2 MUSIKA

Nork	Eguna	Ordua	Leku	Jarduera	Aurkezpena	EKINTZA	Oro har
DK	Abuztuak 14	19:02	Erdialdean	Jammu	EZ	Beste hizkuntza	beste hizkuntza
DK	Abuztuak 14	19:02	Parte Zaharra	McJEARAS BAND		Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 14	19:02	Parte Zaharra	The Joselontxo's		HG	HG
DK	Abuztuak 14	19:10	Boulevarda	Gertrudis		Katalanez	Katalanez
Amstel	Abuztuak 14	19:30-21:30	Edozein txokotan	Pop Up: Stay Blues		Ingelesez	Ingelesez
DK	Abuztuak 14	19:30	Koruko Amaren basilika	Salbea		Ele bitan	Ele bitan
DK	Abuztuak 14	20:30	Konstituzio plaza	Txistulari Alardea		HG	HG
DK	Abuztuak 14	23:30	Easo plaza	Azabache orkestra	Ele bitan	Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 14	23:30	Gipuzkoa plaza	Adore Jazz eta irunbreak	Ele bitan	HG	HG
DK	Abuztuak 14	23.45	Kursaaleko Zurriola Terraza	Rai band rai musika eta DJ Lord Mussasf		Arabiarrez	Arabiarrez
DK	Abuztuak 14	23:45	Urumea Terraza	Kursaal gunen zabala		Denetarik	Gaztelera
DK	Abuztuak 14	23:45	Sagues	Los Planetas	Ele bitan	Gaztelera	Gaztelera
Amstel	Abuztuak 15	18:00-20:00	Edozein Txokotan	Pop up: Lolos Club		Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 15	18:30	Zurriola	Txaranga		HG	HG
DK	Abuztuak 15	18:30	Kontxa	Txaranga		HG	HG
DK	Abuztuak 15	19:00	Boulevarda	Irun hiria musika banda	Ele bitan	HG	HG
DK	Abuztuak 15	19.30	Easo plaza	"Ezkontza Hindu"		Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 15	23:30	Easo plaza	Kafe Irlandes Orkestra	Ele bitan	Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 15	23.30	Bulebarreko Kioskoa	Jammu	Ele bitan	Beste hizkuntza	Beste hizkuntza
DK	Abuztuak 15	23:30	Konstituzio plaza	Erromeria	Ele bitan	Euskaraz	Euskaraz
DK	Abuztuak 15	23:45	Urumea Terraza	Kursaal gunen zabala		Denetarik	Euskaraz
DK	Abuztuak 15	23.45	Sagues	Delorean	Ele bitan	Ingelesez	Ingelesez
Amstel	Abuztuak 16	18:00-20:00	Edozein txokotan	Po up: Ras Miguel & Tafari	EZ	Gaztelera	Gaztelera
Gabiltza	Abuztuak 16	18:00	Vinuesa plaza	Kitarra klasikoa	EZ	HG	HG

2010ko Aste Nagusia

DK	Abuztuak 16	18:30	portua	Txaranga	EZ	HG	HG
DK	Abuztuak 16	18.30	Zurriola pasealekua	Txaranga	EZ	HG	HG
DK	Abuztuak 16	19:00	Boulevardeko kioskoa	Musika banda	Ele bitan	HG	HG
DK	Abuztuak 16	23:30	Konstituzio plaza	Abarrots erromeria	Ele bitan	Euskaraz	Euskaraz
DK	Abuztuak 16	23:30	Easo plaza	Mileniun orkestra	Ele bitan	Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 16	23:30	Bulebarreko kioskoa	Jojo bordagarai	Ele bitan	Euskaraz	Euskaraz
DK	Abuztuak 16	23:45	Urumea Terraza	Kursaal gunen zabala		Denetarik	Gaztelera
DK	Abuztuak 16	23:45	Sagues	The Wailers	Ele bitan	Ingelese	Ingelese
Amstel	Abuztuak 17	18:00-20:00	Edozein Txokotan	Pop Up: Latitud 43		Gaztelera	Gaztelera
DK	Abuztuak 17	18:30	Zurriola pasealekua	Txaranga		HG	HG
DK	Abuztuak 17	18:30	Hiriko erdigunea	Txaranga		HG	HG
